

## Bestelako Xedapenak

### KULTURA SAILA

2553

AGINDUA, 2011ko apirilaren 20koa, Kulturako sailburuarena, entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2011n euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak (Lanhitz) ematea arautzen duena.

Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak EAEn Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen. Dekretu horren 15. artikulua Kulturako Sailari, besteak beste, honako hauen inguruko egitekoak izendatu zizkion: hizkuntza politika eta euskararen sustapena.

Bestalde, 45/2011 Dekretuak, martxoaren 22koak, Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko denak, honako zeregin hau ezarri zion Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bere 14.2.e) artikuluan (EHAA, martxoaren 25ekoa, 59. zk.): Euskararen Erabilpena Arautzen duen 10/1982 Oinarriko Legea eta gainerako xedapen osagarriak modu egokian gara eta bete daitezela begiratzea, beti ere beste administrazio-organo batzuek bereziki esleitura dituzten egitekoak urratu gabe.

Halaber, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere egiten ditu Euskararen Aholku Batzordearen «Euskara 21, Itun Berritu Baterantz» izenburudun liburuan jasotako XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren lehentasunezko ildoak.

Jarriak dauzkan zereginak betetze aldera, Kultura Sailak urtero-urtero deitu eta ebatzi izan ditu arloz arloz laguntza-deialdiak. Era berean, bidera ditzakeen gainerako ekintzei kalterik egin gabe, 2011ko deialdia egitea erabaki du.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT:

**1. artikulua.**– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2011n euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea da (Lanhitz).

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

2553

ORDEN de 20 de abril de 2011, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones para fomentar el uso y la presencia del euskera en los centros de trabajo de entidades del sector privado ubicadas en la CAV, durante el año 2011 (Lanhitz).

El artículo 15 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, asignó al Departamento de Cultura, entre otras, las relativas a la política lingüística y la promoción del euskera.

Por otro lado, el artículo 14.2.e) del Decreto 45/2011, de 22 de marzo, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura (BOPV n.º 59, de 25 de marzo) asigna el siguiente cometido a la Viceconsejería de Política Lingüística: velar por el adecuado desarrollo y aplicación de la Ley 10/1982, básica de normalización del uso del euskera y demás disposiciones complementarias, sin perjuicio de las funciones que en tal sentido tengan específicamente asignados otros órganos administrativos.

Asimismo, la Viceconsejería de política Lingüística asume las líneas de prioridad para la política lingüística de principios del siglo XXI formuladas por el Consejo Asesor del Euskera, recogidas en la publicación «Euskara 21, Hacia un Pacto Renovado».

En cumplimiento del cometido que tiene asignado, el Departamento de Cultura ha convocado y resuelto anualmente diversas órdenes de subvención sectoriales. Asimismo, sin menoscabo de otras acciones que pueda emprender, ha acordado convocar la convocatoria correspondiente a 2011.

En su virtud,

RESUELVO:

**Artículo 1.**– Objeto de la convocatoria.

Es objeto de la presente Orden regular las subvenciones para fomentar el uso y la presencia del euskera en los centros de trabajo de entidades del sector privado ubicados en la CAV, durante el año 2011 (Lanhitz).

**2. artikulua.**– Diru-baliabideak.

Lanhitz deialdirako aurreikusitako diru-baliabideak 2.400.000 euro dira (kopuru hau lehen xedapen gehigarriaren arabera gehitu egin daiteke) eta irizpide hauen arabera baliatuko dira:

1.– Lehenik, 2010ean Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratu eta deialdi honetako baldintzak betetzen dituzten entitateek diru-laguntza gehigarri bat jaso ahal izango dute, baldin eta diru-laguntza jasotzeko lortu beharreko gutxieneko puntuak lortzen badituzte.

2.– Gainerakoa, lehen euskara-planaren diseinua eta 2011ko kudeaketa-plana garatzeko eskabidea egin duten entitateen artean banatuko da, Agindu honetako 13. eta 14. artikuluetan jasotako puntuen eta mugen arabera.

**3. artikulua.**– Entitate onuradunak.

1.– Hauek dira laguntza-modalitate honen hartzaiak: Europar Batasuneko naziotasuna edo helbide soziala edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen edozein estatutakoa duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak, baldin eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa badute eta indarreko legeriaren arabera eratuta badaude eta, edozein dela ere haien eraketa juridikoa, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten lantokien titularrak edo kudeatzaileak badira.

2.– Deialdi honetatik baztertuko direnak:

a) Herri administrazio batek edo gehiagok jarritako kapitala denetara entitatearen kapital sozial osoan erdia baino gehiago duten entitateak.

b) Euskalduntzen edo euskara-planen aholkularitzalantetan nagusiki jarduten dutenak.

3.– EAEko administrazio orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin behar da onuradunei diru-laguntzak eman eta, kasua balitz, ordaindu ahal izateko.

4.– Laguntza-deialdi honetara ezin izango dira aurkeztu zigor eta administrazioaren arloan diru-laguntza publikoak jasotzeko debekurik dutenak, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen dituen legezko debekuetan sartuta daudenak ere. Era berean, ezin izango da sexu arrazoiengatik diskriminaziorik egitearren zigortua izan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

**Artículo 2.**– Dotación económica.

La dotación económica prevista para la convocatoria Lanhitz asciende a 2.400.000 euros (se podrá aumentar según lo dispuesto en la disposición adicional primera) y se repartirá conforme a los siguientes criterios:

1.– Primero, aquellas entidades que en 2010 hayan conseguido el Certificado de Calidad en la Gestión Lingüística-Bikain y, a su vez cumplan los requisitos de esta convocatoria, podrán acceder a una subvención adicional, siempre y cuando consigan el mínimo de puntos necesario para acceder a la subvención.

2.– La cantidad restante se repartirá entre las entidades que soliciten ayuda para el diseño del plan y para el plan de gestión de 2011, según la puntuación y los límites recogidos en los artículos 13 y 14 de la presente Orden.

**Artículo 3.**– Entidades beneficiarias.

1.– Esta modalidad de subvención está dirigida a todas aquellas personas físicas o jurídicas privadas, de nacionalidad o domicilio social en cualquier Estado miembro de la Unión Europea, o de los Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar y estén constituidas legalmente conforme a la legislación vigente y que, independientemente de su forma jurídica, sean titulares o, en su caso, gestionen centros de trabajo radicados en la Comunidad Autónoma Vasca.

2.– Se excluirán de esta convocatoria:

a) Las entidades en cuyo capital social la participación de una o varias administraciones públicas sea superior al 50%.

b) Las que se dedican a la euskaldunización o que principalmente realizan funciones de asesoría en planes de euskera.

3.– La concesión y, en su caso, el pago de la subvención a la entidad beneficiaria quedará condicionada a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la CAV y sus organismo autónomos, se halle todavía en tramitación.

4.– No podrán concurrir a la presente convocatoria de subvenciones quienes se hallen sancionados penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o estén incurso en prohibición legal alguna que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

5.- Laguntza-deialdi honetatik kanpo geratzen dira ondoren adierazten diren estatu laguntza erregimenaren bidez legez kanpoko eta bateraezinak diren diru-laguntzak jaso dituzten erakundeak: Araba I, Araba II eta Araba III (CR 48/99, CR 49/99 eta CR 58/99); Gipuzkoa I, Gipuzkoa II eta Gipuzkoa III (CR 50/99, CR 53/99 eta CR 59/00) eta Bizkaia I, Bizkaia II eta Bizkaia III (CR 52/99, CR 54/99 eta CR 60/00) baldin eta jasotako diru-laguntza eta dagozkion interesak blokeatutako diru-kontu batera itzuli ez badituzte.

**4. artikulua.**- Diru-laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazioarako Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetako diru-laguntzak.

**5. artikulua.**- Denbora-barrutia eta eskabideak aurkezteko epea.

1.- Laguntza-deialdi honek 2011n burutuko diren egitasmoak baino ez ditu kontuan hartuko. Hori dela eta, deialdi honetara jotzen duten egitasmoak gauzatzearen ondorioz eskaini, eman edo gizarteratu beharreko jarduerak, zerbitzuak eta produktuak 2011ko abenduaren 31 baino lehen eskaini, eman edota gizarteratuko dira.

2.- Laguntza-deialdi honetan parte hartu nahi duen orok eskabide-orri bat aurkezteko aukera izango du, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hila-beteko epean.

**6. artikulua.**- Eskabide-orriaren aurkezpena.

1.- Eskabide-orria (A eranskina), entitate eskatzailearen legezko ordezkariak sinatuta egon beharko duena, eskatutako agiriarekin batera aurkeztu beharko da.

2.- Eskabide-orria eta agiriak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeari zuzenduko zaizkionak, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, bere 38.4 artikuluan aurreikusitako tokietakoren batean aurkeztuko dira.

a) Eskuz esku egin nahi izanez gero, honako toki hauetakoren batean aurkeztuko dira:

- Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

- Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Kulturako Lurralde Unitatea, Gran Vía, 85; 48011 Bilbao.

- Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Kulturako Lurralde Unitatea, Andia kalea, 13; 20008 Donostia-San Sebastián.

5.- Quedan excluidas de esta convocatoria aquellas entidades que hayan percibido alguna de las ayudas ilegales e incompatibles de alguno de los regímenes de ayudas estatales siguientes: Araba I, Araba II y Araba III (CR 48/99, CR 49/99 y CR 58/99); Gipuzkoa I, Gipuzkoa II y Gipuzkoa III (CR 50/99, CR 53/99 y CR 59/00) y Bizkaia I, Bizkaia II y Bizkaia III (CR 52/99, CR 54/99 y CR 60/00), que no hayan procedido a su reembolso o depósito en una cuenta bloqueada junto con los intereses correspondientes.

**Artículo 4.**- Órgano gestor de las subvenciones.

Corresponderá a la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística la gestión de la presente convocatoria.

**Artículo 5.**- Ámbito temporal y plazo de presentación de solicitudes.

1.- Solamente podrán acogerse a la presente convocatoria de subvenciones los proyectos que se materialicen en 2011. Consecuentemente, todas las actividades, servicios y productos derivados de los proyectos acogidos a la convocatoria deberán ser materializados y presentados públicamente antes del 31 de diciembre de 2011.

2.- Toda entidad interesada en tomar parte en esta convocatoria podrá presentar una solicitud en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Artículo 6.**- Presentación del impreso de solicitud.

1.- El impreso de solicitud (anexo A), firmado por la persona que representa legalmente a la entidad solicitante, deberá ser presentado junto a la documentación señalada.

2.- El impreso de solicitud y la documentación estarán dirigidos a la Viceconsejera de Política Lingüística y se deberán presentar en alguno de los lugares previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

a) En caso de hacerlo personalmente, se presentarán en alguno de los siguientes puntos:

- Gobierno Vasco, Departamento de Cultura, Viceconsejería de Política Lingüística, c/ Donostia-San Sebastián, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

- Gobierno Vasco, Unidad Territorial de Cultura de Bizkaia, Gran Vía, 85; 48011 Bilbao.

- Gobierno Vasco, Unidad Territorial de Cultura de Gipuzkoa, c/ Andia, 13; 20008 Donostia-San Sebastián.

– 72/2008 Dekretuak, apirilaren 29koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak, zehaztutako edozeinetan (EHAA, 2008ko maiatzaren 30ekoa, 102. zk.).

b) Postaz egin nahi izanez gero, honako helbide honetara bidali beharko dira eskabide-orria eta agiriak: Eusko Jaurlaritzza, Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Bide horri ekitekotan, eskabide-orria kartazal irekian aurkeztu beharko da posta-bulegoan, postariak, ziurtapena egin baino lehen, data eta zigilua jarri diezazkion eskabide-orrian bertan.

**7. artikulua.**– Aurkeztutako eskabidean eginiko akatsen zuzenketa.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egiten duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

**8. artikulua.**– Deialdira bil daitezkeen jarduerak.

Agindu honetako diru-laguntzak ondoren aipatzen diren jardueretarako erabiliko dira: EAE n lantokiak dituzten entitate pribatuen lehen erabilera-planaren diseinurako eta kudeaketa-planerako.

Entitateak lehen euskara-planaren diseinurako laguntza eska dezake lehendik laguntzarik jaso ez badu, ez diseinurako, ez kudeaketa-planerako.

Lehen euskara-planaren diseinua aurkeztuz gero, urteko kudeaketa-plana ere aurkeztu beharko du entitate eskatzaileak. Kudeaketa-plana garatzeko ekintzek 2011ko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra bitartean egindakoak izan behar dute.

**9. artikulua.**– Dirulaguntza-gai diren bi jarduerak bete beharreko gutxienekoak: lehen euskara-planaren diseinua eta 2011ko kudeaketa-plana.

1.– Eskatzaile guztiek, Erreferentzia Marko Estandarrari jarraiki (EME aurrerantzean), aplikagarri zaizkien 3. mailako osagai guztien hizkuntza-egoera zehaztu beharko dute eta urteko planerako helburuak (epe labur eta ertainera) ere zehaztu beharko dituzte, Planhitz aplikazio informatikoa modu egokian betez.

– En cualquiera de los reseñados en el Decreto 72/2008, de 29 de abril, de creación, organización y funcionamiento de los registros de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos (BOPV n.º 102, de 30 de mayo de 2008).

b) En caso de hacerlo a través de Correos, el impreso de solicitud y la documentación se remitirán a la siguiente dirección postal: Gobierno Vasco, Departamento de Cultura, Viceconsejería de Política Lingüística, c/ Donostia-San Sebastián, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz. La entidad que desee utilizar la presente vía de entrega deberá presentar al personal de correos el impreso de solicitud en sobre abierto, al objeto de que estampe la fecha y el sello en el propio impreso antes de certificar el envío.

**Artículo 7.**– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

En el supuesto de que se apreciase la falta de la documentación requerida para la admisión a trámite de la solicitud o defectos formales en aquella, así como en el supuesto de que se observaran defectos en la documentación alegada para su valoración, se le requerirá a la persona interesada para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición o decaída en su derecho al trámite, previa resolución.

**Artículo 8.**– Actividades subvencionables.

Las subvenciones previstas en esta convocatoria se destinarán a las siguientes actividades: diseño del primer plan de euskera y plan de gestión de centros de trabajo de entidades del sector privado ubicados en la CAV.

La entidad puede solicitar subvención para el diseño del primer plan si con anterioridad no ha recibido subvención ni para el diseño del plan ni para el plan de gestión.

En caso de presentar el diseño del plan de euskera, la entidad solicitante deberá presentar además el plan de gestión anual. Las actividades previstas dentro del plan de gestión deberán desarrollarse del 1 de enero de 2011 al 31 de diciembre del mismo año.

**Artículo 9.**– Requisitos que deben cumplir las dos actividades subvencionables: diseño del primer plan de euskera y plan de gestión de 2011.

1.– Todos los solicitantes deberán detallar la situación lingüística de cada uno de los ítems de tercer nivel del Marco de Referencia Estándar (en adelante EME, que corresponde al acrónimo en euskera) y deberán, asimismo, establecer los objetivos (a corto y medio plazo) del plan de gestión, cumplimentando para ello adecuadamente la aplicación informática Planhitz.

2.– Entitate eskatzaileek, aipatutako aplikazioaren bidez, EME ereduaren arabera aurkeztuko dute kudeaketa-plana (urteko planaren barruko ekintzak atala behar bezala betez). Plan guztiek EMEn lehendabiziko hiru ardatzetatik bi ardatz jorratu behar dituzte, gutxienez. Halaber, euskara-koordinatzailea edota euskara-batzordea izan behar dute.

3.– Entitate eskatzailearen aginte exekutibo gorenaren duen organoak onartu behar du urteko kudeaketa-plana agindu honen A eranskinean ageri den agiria betez. Legezko ordezkariak sinatu beharko du aurkeztutako plana entitatearen aginte exekutibo gorenaren duen organoak aztertu eta onartu egin duela adieraziz.

**10. artikulua.**– Diru-laguntzak jasotzeko baldintzak.

1.– Proiektuaren auto-finantzazioa gutxienez % 40koa izatea.

2.– Entitateak bere jarduerak 9. artikuluan zehaztutakoaren arabera aurkeztu behar ditu.

3.– Diru-laguntzaren jasotzaile direnek diruz lagundutako programa, proiektu edo jardueren ondorioz agerpen publikoetan erabiltzeko diren iragarkitxarteletan, argazkietan eta gainerako material idatzietan, entzunezkoetan eta elektronikoetan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren menpeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskainitako babesa adierazi beharko dute, horretarako logotipo normalizatu erabiliz. Arestian zerrendatutako material horiek guztiek gutxienez euskaraz egon beharko dute.

**11. artikulua.**– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Laguntza-deialdian parte hartu nahi duen orok agindu honi lotutako A eranskina bete beharko du. Bertan, zein jardueratarako aurkeztu nahi duten zehaztuko dute (bi jarduerak markatzea posible da, betiere aurreko urteetan xede hauetako baterako ere Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntzarik jaso ez badu eskatzaileak).

2.– Eskabide-orriarekin batera honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu laguntza-eskatzaileak:

a) Identitatea egiaztatzeko agiriak:

1) Eskabidea bere izenean edo ahaldu gisa sinatzen duen pertsonaren indarreango pasaportearen edo nortasun agiriaren fotokopia.

2) Ekonomi Jardueraren gaineko Zergari dagokion izen-emate agiriaren fotokopia.

3) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, eratze-eskrituraren fotokopia, entitateko estatutuen fotokopia eta dagokion Erregistro Publikoan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, aplikagarri den merkataritzako legeriaren arabera eskakizun hori eska badaiteke. Hala ez balitz, eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo fundazioko egintza, jarduerak

2.– Las entidades solicitantes presentarán el plan de gestión a través de la citada aplicación (cumplimentando adecuadamente el apartado acciones dentro del plan anual). Todos los planes deberán plantear el desarrollo de al menos dos de los tres primeros ejes del EME. Asimismo, deberán contar con un/a coordinador/a de euskera y/o comisión de euskera.

3.– El órgano de máximo poder ejecutivo deberá aceptar el plan de gestión anual, mediante la cumplimentación del anexo A de la Orden. El/la representante legal de la entidad será quien firme dicho documento donde se expresará cómo el órgano de máximo poder ejecutivo ha examinado y aceptado dicho plan.

**Artículo 10.**– Condiciones para acceder a la ayuda.

1.– El nivel de autofinanciación del proyecto será al menos del 40%.

2.– La entidad solicitante deberá presentar las actividades tal y como se recogen en el artículo 9.

3.– Las entidades beneficiarias de subvención deberán incluir la mención del patrocinio de la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, mediante el logotipo normalizado en todos los carteles anunciadores, fotografías y demás materiales gráficos, sonoros y electrónicos para su uso en apariciones públicas realizadas como consecuencia del programa, proyecto o actividad subvencionada. Todos los materiales mencionados en este artículo deberán estar al menos en euskera.

**Artículo 11.**– Documentación que deberá presentarse.

1.– Cualquier entidad interesada en participar en la convocatoria deberá cumplimentar el anexo A. En dicho anexo deberá especificarse para qué actividad se solicita la subvención (es posible seleccionar ambas actividades, siempre y cuando la entidad solicitante no haya recibido ayuda para ninguno de estos fines con anterioridad de la Viceconsejería de Política Lingüística).

2.– El solicitante de la ayuda deberá adjuntar los siguientes documentos al impreso de solicitud:

a) Documentación de acreditación de identidad:

1) Fotocopia del pasaporte o documento de identidad en vigor de la persona que firma la solicitud, en su nombre propio o como apoderada.

2) Fotocopia del alta en el Impuesto de Actividades Económicas.

3) Cuando la entidad solicitante sea persona jurídica, presentará escritura de constitución y estatutos vigentes inscritos en el Registro Mercantil, cuando este requisito fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la escritura o documento de constitución, estatutos o acta fundacional en el que consten las normas por las

era arautzen duten arauak jasotzen dituen eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean erregistratutakoa, pertsona juridiko motaren arabera. Administrazio honetako Erregistroetan dauden fundazioak, elkarteak edo kooperatibak badira, ofizioz konprobatuko du Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak. Pertsona fisikoa balitz, Autonomoen Erregimenean edo dagokion lan-mutualitatean alta emanda dagoelako agiria, hala badagokio.

4) Ahalordea ematea: eskabidea sinatzen duenak bere izenean egiten ez badu edo interesatua pertsona juridikoa bada, sinatzaileak horretarako behar adina-ko ahalordea aurkeztu beharko du.

5) IFZren fotokopia.

6) Dagozkion zerga-ordainketetan egunean egotearen ziurtagiri eguneratua.

7) Gizarte Segurantzaren egunean egotearen ziurtagiri eguneratua.

Azken bi agiriak (artikulu honetako a.6 eta a.7 puntuetan ageri direnak) gehienez eskabidea aurkeztu baino hiru hilabete lehenagokoak izango dira, eta organo eskumendunak emanak. Dena den, dokumentazio hori dela eta, jardunbideak irauten duen bitartean eskatzen zaizkien ziurtagiriak aurkeztu egin beharko ditu onuradunak.

8) Artikulu honetako a.1, a.3, a.4 eta a.5 puntuetan adierazitako agirien orde, B eranskina aurkez daiteke agiriok administrazio honetan lehenago ere aurkeztu izan badira eta indarrean jarraitzen badute.

b) Jarduerari buruzko dokumentazioa:

1) Jardueraren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza eta xehatua, C eranskinaren ereduaren arabera. Jarduera bera garatzeko bestelako diru-laguntzarik eskatu ez bada, hori adierazten duen zinpeko aitorpena egin behar da, eranskin honetan bertan dagokion laukitxoa aukeratuta.

2) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako aplikazio informatikoa era egokian beteta. Erabiltzaile berriek Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzarekin harremanetan jarri behar dute Planhitz aplikazioan alta emateko. Erabiltzaile-aldaketa guztiak Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari jakinaraziko zaizkio, Lanhitz web gunean ([www.euskara.euskadi.net/lanhitz](http://www.euskara.euskadi.net/lanhitz)) dagoen alta emateko fitxaren bidez.

3) Berrikuntza edota euskararen erabilera sustatzeko web 2.0 proiektuak aurkeztuz gero, entitateak proiektuaren memoria-txostena euskarri elektronikoa edo paperean aurkeztu beharko du (D eranskina).

que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el Registro público que corresponda, según el tipo de persona jurídica de que se trate. En el caso de fundaciones, asociaciones o cooperativas inscritas en los Registros dependientes de esta Administración, la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística realizará la comprobación de oficio. Si fuera persona física, alta en el Régimen de Autónomos o, en su caso, Mutualidad profesional correspondiente.

4) Apoderamiento: cuando la persona que firma la solicitud no actúe en nombre propio o la empresa interesada sea una persona jurídica, la persona que firma deberá presentar apoderamiento bastante al efecto.

5) Fotocopia del NIF.

6) Certificación actualizada acreditativa de hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias.

7) Certificación actualizada acreditativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social.

Referente a los dos documentos anteriores (citados en los apartados a.6 y a.7 de este artículo), deberán haber sido expedidos dentro de los tres meses anteriores a la fecha de presentación de la solicitud. De cualquier forma, el beneficiario deberá presentar aquellos certificados que se le demanden durante el transcurso de la tramitación.

8) Declaración sustitutiva de la documentación relacionada en los apartados a.1, a.3, a.4 y a.5 de este artículo (anexo B), siempre y cuando esté en manos de la administración y siga vigente.

b) Documentación relativa a la actividad:

1) Presupuesto desglosado y detallado de ingresos y gastos del proyecto según el modelo del anexo C. En el caso de no haber solicitado ningún otro tipo de ayuda para desarrollar el proyecto, marcar en el recuadro correspondiente de este mismo anexo la declaración jurada.

2) Se cumplimentará debidamente la aplicación informática elaborada por la Viceconsejería de Política Lingüística. Los nuevos usuarios deberán ponerse en contacto con la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística de la citada Viceconsejería cuanto antes para darse de alta en la aplicación Planhitz. Cualquier cambio de usuario deberá ser notificado a la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística, mediante la ficha de alta disponible en la página web de Lanhitz ([www.euskara.euskadi.net/lanhitz](http://www.euskara.euskadi.net/lanhitz)).

3) En caso de presentar proyectos de innovación o de fomento del uso del euskera en entornos web 2.0, la entidad solicitante deberá acompañar a los documentos anteriores un informe de dicho proyecto en soporte electrónico o en papel (anexo D).

c) Ordainketarako dokumentazioa: I.A edo I.B eranskina (beharrezkoak balira). Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntzarik inoiz jaso ez dutenek I.A beteko dute; Eusko Jaurlaritzatik inoiz diru-laguntzaren bat jaso badute ere, helbideratze- edota banketzeko datuetan aldaketaren bat sartu nahi dutenek, ordea, I.B.

**12. artikulua.**– Balorazio-batzordea.

1.– Bai lehen euskara-planaren diseinurako bai 2011ko kudeaketa-planak aztertzeko eta baloratzeko, hurrengo kideek osatutako balorazio-batzordea eratu da:

a) Kultura Saileko Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria, batzordearen buru izango dena, edo haren ordezkoa.

b) Kultura Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria, edo haren ordezkoa.

c) Foru Administrazioetako hizkuntza politikaren ardura duen saileko teknikari bat, gutxienez maila zerbitzuburuarena delarik.

d) Sozio-ekonomia arloko bi aditu.

e) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako Erabilera-planak Sustatzeko arduraduna edo haren ordezkoa.

f) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuaren arduraduna edo haren ordezkoa.

g) Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzako teknikari bat, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatutakoa. Teknikari horrek idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

2.– Balorazio-batzorde honek, agindu honen 13., 14. eta 18. artikuluetan ezarritako diru-laguntzak emateko eta zenbatekoa finkatzeko irizpideak kontuan izanik, aurkeztutako planak aztertu eta baloratu ondoren, Hizkuntza Politikarako sailburuordeari ebazpen-proposamena aurkeztuko dio. Behin Hizkuntza Politikarako sailburuordeak ebazpen-proposamenak sinatu ostean, entitate onuradunei jakinaraziko zaie eta, EHAAan argitaratuko dira, herritar orok jakin dezan.

3.– Balorazio-batzordea osatzeko orduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, bere 3.7 artikuluan dioena beteko da.

4.– Balorazio-batzordearen osaeraren berri Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da, Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

c) Documentación para el libramiento de pagos: anexos I.A o I.B si fueran necesarios. Quienes no hayan recibido ayuda alguna del Gobierno Vasco presentarán el anexo I.A; si bien hubieran recibido ayudas del Gobierno Vasco y desean indicar algún cambio de domicilio o de los datos bancarios presentarán el anexo I.B.

**Artículo 12.**– Comisión de Valoración.

1.– Tanto para la valoración del diseño del primer plan de euskera como para el análisis y valoración de los planes de gestión de 2011 se constituirá una Comisión de Valoración compuesta por los siguientes miembros:

a) El Director de Investigación y Coordinación Lingüística del Departamento de Cultura, que presidirá la comisión, o la persona que lo sustituya.

b) El Director de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas del Departamento de Cultura, o la persona que lo sustituya.

c) Un/a técnico/a del departamento competente en política lingüística de la administración foral, cuyo nivel mínimo sea de jefatura de servicio.

d) Dos personas expertas en el sector socioeconómico.

e) La responsable del Área de Fomento de Planes de Euskera de la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística o persona que la sustituya.

f) La responsable del Servicio de Documentación e Información de la Dirección de Promoción del Euskera o persona que la sustituya.

g) Un/a técnico/a de la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística designado/a por la Viceconsejera de Política Lingüística. Actuará como secretario/a, con voz pero sin voto.

2.– Dicha comisión, atendiendo a los criterios de adjudicación y cuantificación de las subvenciones establecidas en los artículos 13, 14 y 18 de esta Orden, una vez examinados y hecha la valoración pertinente de los planes presentados, elevará la oportuna propuesta de resolución a la Viceconsejera de Política Lingüística. Una vez que la Viceconsejera de Política Lingüística firme la propuesta de resolución, se notificará a las entidades beneficiarias y, a efectos de general conocimiento, será publicada en el BOPV.

3.– Al momento de formar las comisiones de valoración, se cumplirá lo establecido en el artículo 3.7 de la Ley de 18 de febrero 4/2005, para la Igualdad entre Mujeres y Hombres.

4.– La composición de las comisiones de valoración se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, mediante resolución de la Viceconsejera de Política Lingüística.

**13. artikulua.**– Diru-laguntza ebazteko prozedura eta balorazio-irizpideak.

1.– Lehiaketa bidez erabakiko da deialdi hau; hots, aurkeztutako eskabideen arteko konparaketa egingo da eta finkatutako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, egitasmo bakoitzari dagokion puntuazioa emango zaio.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jardueraren aurrekontua hartuko da oinarri. Aldez aurretik, behar izanez gero, 18.10 artikulua araberak konputatu ezin diren gaındikinen arazketa egingo da, aurrekontu araztua finkatuz. Emango diren diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa % 60koa izango da aurrekontu araztuaren gainean. Halaber, ezingo zaie eskatu baino gehiago esleitu, eta lortutako puntuazioari 14. artikuluan zehaztutako mugak ezarriko zaizkie.

Nolanahi ere, hasierako kalkuluen emaitzen kopurua deialdiaren diru-zuzkidura baino handiagoa bada, entitateek jaso beharreko diru-laguntza kopurua hainbanatu egingo da, proportzioan, deialdiaren aurrekontu baliabideetara egokitzeko.

3.– Lehen euskara-planaren diseinua baloratzeko irizpideak:

a) Euskara-planaren balioespena, EMERi jarraiki egindako diagnosiaren, aukeratutako helburuen eta planteatutako aurrerapen-mailaren araberak: 15 (hamabost) puntu, gehienez.

- 1) Egungo hizkuntza egoera: 8 puntu gehienez.
- 2) Aurrerapen-maila: 7 puntu gehienez.

b) Egindako diagnostik aukeratutako helburuetara zein planteatutako aurrerapen-mailara iristeko kudeaketa-planaren egokitasuna eta bideragarritasuna: 30 (hogeita hamar) puntu, gehienez.

1) Ekintza-planaren balioespena: 30 puntu gehienez.

c) Entitateak aurkeztutako adierazle-sistema. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak finkatutako adierazle-sorta (aipatutako Zuzendaritzak bere web gunean eskura jarriko duen ereduaren araberak: [www.euskara.euskadi.net/lanhitz](http://www.euskara.euskadi.net/lanhitz)) nahiz entitateak berak finkatutako aurkez dezake kudeaketa-planarekin batera. Adierazleen egokitasuna eta adierazkortasuna baloratuko da: 10 (hamar) puntu, gehienez.

1) HPSren adierazle-sorta edo entitatearen bestelako adierazleak beteta: 10 puntu.

2) Adierazlerik ez da aurkeztu: 0 puntu.

d) Auto-finantzazioa: 10 (hamar) puntu, gehienez.

1) Finantzazio-maila propioa % 41etik % 50era bitartekoa bada: 5 puntu.

**Artículo 13.**– Procedimiento de resolución de las ayudas y criterios de valoración.

1.– Esta convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso, esto es, mediante la comparación de las solicitudes presentadas, atendiendo a los criterios de valoración fijados, a fin de establecer la puntuación correspondiente a cada proyecto.

2.– Para determinar la cuantía de la subvención, se tendrá en cuenta el presupuesto de la actividad. Si así conviniera, se realizará la depuración de los excedentes no computables en relación a los criterios establecidos en el artículo 18.10, estableciéndose de este modo el presupuesto depurado. La ayuda concedida en ningún caso podrá superar el 60% de lo establecido en el presupuesto depurado. Asimismo, no se adjudicará una subvención superior a la solicitada, y se aplicarán los límites establecidos en el artículo 14 a la puntuación obtenida.

No obstante, si los importes resultantes superaran la dotación económica de la convocatoria, las cuantías a percibir se prorratearán en igual proporción, a fin de ajustar estas a las disponibilidades presupuestarias de la convocatoria.

3.– Criterios para la valoración del diseño del primer plan de euskera:

a) Valoración del Plan de Euskera, en base al diagnóstico realizado del EME, a los objetivos planteados y al grado de avance especificado: máximo 15 (quince) puntos.

- 1) Situación lingüística actual: 8 puntos máximo.
- 2) Grado de avance: 7 puntos máximo.

b) El nivel de idoneidad y viabilidad del plan de gestión para alcanzar el grado de avance planteado tomando como punto de partida el diagnóstico definido y los objetivos especificados: máximo 30 (treinta) puntos.

1) Valoración del plan de actividades: 30 puntos máximo.

c) El sistema de indicadores presentado por la entidad. Pueden presentar los indicadores que la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística ha elaborado (siguiendo el modelo que facilita esta Dirección en su página web: [www.euskara.euskadi.net/lanhitz](http://www.euskara.euskadi.net/lanhitz)) o si la propia entidad los tiene definidos, presentar estos junto con el plan de gestión. Se valorará que los indicadores cumplan su función de medición de forma adecuada y significativa: máximo 10 (diez) puntos.

1) Indicadores proporcionados por HPS o lista propia de indicadores cumplimentada: 10 puntos.

2) No se han presentado indicadores: 0 puntos.

d) Autofinanciación: máximo 10 (diez) puntos.

1) Nivel de autofinanciación del 41% al 50%: 5 puntos.



2) Finantzazio-maila propioa % 51tik % 65era bitartekoa bada: 8 puntu.

3) Finantzazio-maila propioa % 65etik gorakoa bada: 10 puntu.

e) Errotze- eta instituzionalizatzeko-maila: erakundeak, hizkuntza bere sistematan integrazteko, lantzen dituen barne mekanismo edo irizpideak baloratuko dira, EMERen 4. ardatzean oinarrituta. Hona hemen adibide gisa aintzat hartuko direnak: Euskara-Batzordea duten ala ez eta bere osaera (baloratuko da zuzendaritza-mailako ordezkariak egotea, eta agintemaita desberdinetako langileak egotea); Euskara-Batzordea enpresaren organigraman dagoen ala ez; Euskara-planaren helburu nagusiak plan zabalagoan jasota ote dauden (estrategikoan, adibidez); enpresa osoko hizkuntza-politika zehazten duen adierazpenik dagoen; euskara-plana enpresaren kalitate-planean txertatuta dagoen; euskararekiko jokabidea prozeduratan txertatuta dagoen; hizkuntza-irizpideak zenbait arlotan indarrean dauden (arlotan berrietara hedatzeko ahalegina), eta abar: 15 (hamabost) puntu, gehienez.

1) Hizkuntza politika: 5 puntu arte.

2) Euskara Batzordea: 5 puntu arte.

3) Hizkuntza irizpideak: 5 puntu arte.

f) Euskara planean berrikuntza metodologikoa lantzen duten egitasmoak eta euskararen erabilera sustatzeko web 2.0 proiektuak: 10 (hamar) puntu gehienez.

1) Berrikuntza egitasmoak: 5 puntu gehienez.

2) Web 2.0 egitasmoak: 5 puntu gehienez.

g) Entitateak EAEko lantokietan dituen langilekopurua: 10 (hamar) puntu, gehienez.

1) ≤50 langile: 3 puntu.

2) 51-100 langile: 5 puntu.

3) 101-250 langile: 7 puntu.

4) >250 langile: 10 puntu.

4.- 2011ko kudeaketa-plana baloratzeko oinarritzeko irizpideak:

a) Euskara-planaren balioespena, EMERi jarraiki egindako diagnosiaren, aukeratutako helburuen eta planteatutako aurrerapen-mailaren arabera: 15 (hamabost) puntu, gehienez.

1) Egungo hizkuntza egoera: 10 puntu gehienez.

2) Aurrerapen-maila: 5 puntu gehienez.

b) Egindako diagnostik aukeratutako helburuetara zein planteatutako aurrerapen-mailara iristeko kudeaketa-planaren egokitasuna eta bideragarritasuna: 25 (hogeita bost) puntu, gehienez.

2) Nivel de autofinanciación del 51% 65%: 8 puntos.

3) Nivel de autofinanciación superior al 65%: 10 puntos.

e) Grado de afianzamiento e institucionalización: se valorarán los mecanismos internos o criterios que la organización articula de cara a integrar el idioma en su sistemática, conforme al cuarto eje del EME. Se tomarán en consideración, entre otros, los siguientes aspectos: si cuentan o no con una Comisión de Euskera y su composición (se valorará la participación de los miembros de la dirección y trabajadores con diferentes grados de responsabilidad); si la Comisión de Euskera está incluida en el organigrama de la entidad; si los objetivos del plan de euskera están recogidos en un plan más amplio (por ejemplo, en el plan estratégico); si existe alguna declaración sobre la Política Lingüística de la entidad; si el plan de euskera está incluido en el plan de calidad; si las directrices de uso del euskera están procedimentadas; si existen criterios lingüísticos establecidos en diferentes áreas (el esfuerzo para que se extiendan a nuevas áreas), etc.: máximo 15 (quince) puntos.

1) Política lingüística: 5 puntos máximo.

2) Comisión de Euskera: 5 puntos máximo.

3) Criterios lingüísticos: 5 puntos máximo.

f) Proyectos que integren dentro del plan de euskera innovación metodológica y los proyectos web 2.0 que promocionen el uso del euskera: máximo 10 puntos.

1) Proyectos de Innovación: 5 puntos máximo.

2) Proyectos web 2.0: 5 puntos máximo.

g) Número de trabajadores de la entidad en sus correspondientes centros de trabajo de la CAV: máximo 10 (diez) puntos.

1) ≤50 trabajadores: 3 puntos.

2) 51-100 trabajadores: 5 puntos.

3) 101-250 trabajadores: 7 puntos.

4) >250 trabajadores: 10 puntos.

4.- Criterios básicos para valorar el plan de gestión de 2011:

a) Valoración del Plan de Euskera, en base al diagnóstico realizado del EME, a los objetivos planteados y al grado de avance especificado: 15 (quince) puntos máximo.

1) Situación lingüística actual: 10 puntos máximo.

2) Grado de avance: 5 puntos máximo.

b) El nivel de idoneidad y viabilidad del plan de gestión para alcanzar el grado de avance planteado tomando como punto de partida el diagnóstico definido y los objetivos especificados: máximo 25 (veinticinco) puntos.

1) Diru-baliabideen egokitasuna: 5 puntu gehienez.

2) Ekintza-planaren balioespena: 20 puntu gehienez.

c) Entitateak aurkeztutako adierazle-sistema. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak finkatutako adierazle-sorta (aipatutako Zuzendaritzak bere web gunean eskura jarriko duen ereduaren arabera: [www.euskara.euskadi.net/lanhitz](http://www.euskara.euskadi.net/lanhitz)) nahiz entitateak berak finkatutakoa aurkez dezake kudeaketa-planarekin batera. Adierazleen egokitasuna eta adierazkortasuna baloratuko da: 10 (hamar) puntu, gehienez.

1) HPSren adierazle-sorta edo entitatearen bestelako adierazleak beteta: 10 puntu.

2) Adierazlerik ez da aurkeztu: 0 puntu.

d) Auto-finantzazioa: 10 (hamar) puntu, gehienez.

1) Finantzazio-maila propioa % 41etik % 50era bitartekoa bada: 5 puntu.

2) Finantzazio-maila propioa % 51tik % 65era bitartekoa bada: 8 puntu.

3) Finantzazio-maila propioa % 65etik gorakoa bada: 10 puntu.

e) Errotze- eta instituzionalizatzeko-maila: erakundeak, hizkuntza bere sistematikan integrazteko, lantzen dituen barne mekanismo edo irizpideak baloratuko dira, EMEren 4. ardatzean oinarrituta. Hona hemen adibide gisa aintzat hartuko direnak: Euskara-Batzordea duten ala ez eta bere osaera (baloratuko da zuzendaritza-mailako ordezkariak egotea, eta agintemaita desberdinetako langileak egotea); Euskara-Batzordea enpresaren organigraman dagoen ala ez; euskara-planaren helburu nagusiak plan zabalagoan jasota ote dauden (estrategikoan, adibidez); enpresa osoko hizkuntza-politika zehazten duen adierazpenik dagoen; euskara-plana enpresaren kalitate-planean txertatuta dagoen; euskararekiko jokabidea prozeduratan txertatuta dagoen; hizkuntza-irizpideak zenbait arlotan indarrean dauden (arlotan berrietara hedatzeko ahalegina), eta abar: 20 (hogei) puntu, gehienez.

1) Hizkuntza politika: 5 puntura arte.

2) Euskara Batzordea: 5 puntura arte.

3) Hizkuntza irizpideak: 5 puntura arte.

4) Inplikaturako langile kopurua: 5 puntura arte.

f) Euskara planean berrikuntza metodologikoa lantzen duten egitasmoak eta euskararen erabilera sustatzeko web 2.0 proiektuak: 10 (hamar) puntu gehienez.

1) Berrikuntza egitasmoak: 5 puntu gehienez.

1) Idoneidad de los recursos económicos: 5 puntos máximo.

2) Valoración del plan de actividades: 20 puntos máximo.

c) El sistema de indicadores presentado por la entidad. Pueden presentar los indicadores que la Dirección de Investigación y Coordinación Lingüística ha elaborado (siguiendo el modelo que facilita esta Dirección en su página web: [www.euskara.euskadi.net/lanhitz](http://www.euskara.euskadi.net/lanhitz)) o si la propia entidad los tiene definidos, presentar éstos junto con el plan de gestión. Se valorará que los indicadores cumplan su función de medición de forma adecuada y significativa: máximo 10 (diez) puntos.

1) Indicadores proporcionados por HPS o lista propia de indicadores cumplimentada: 10 puntos.

2) No se han presentado indicadores: 0 puntos.

d) Autofinanciación: máximo 10 (diez) puntos.

1) Nivel de autofinanciación del 41% al 50%: 5 puntos.

2) Nivel de autofinanciación del 51% 65%: 8 puntos.

3) Nivel de autofinanciación superior al 65%: 10 puntos.

e) Grado de afianzamiento e institucionalización: se valorarán los mecanismos internos o criterios que la organización articula de cara a integrar el idioma en su sistemática, conforme al cuarto eje del EME. Se tomarán en consideración, entre otros, los siguientes aspectos: si cuentan o no con una Comisión de Euskera y su composición (se valorará la participación de los miembros de la dirección y trabajadores con diferentes grados de responsabilidad); si la Comisión de Euskera está incluida en el organigrama de la entidad; si los objetivos del plan de euskera están recogidos en un plan más amplio (por ejemplo, en el plan estratégico); si existe alguna declaración sobre la Política Lingüística de la entidad; si el plan de euskera está incluido en el plan de calidad; si las directrices de uso del euskera están procedimentadas; si existen criterios lingüísticos establecidos en diferentes áreas (el esfuerzo para que se extiendan a nuevas áreas), etc.: máximo 20 (veinte) puntos.

1) Política lingüística: 5 puntos máximo.

2) Comisión de Euskera: 5 puntos máximo.

3) Criterios lingüísticos: 5 puntos máximo.

4) Número de trabajadores/as implicados/as: 5 puntos máximo.

f) Proyectos que integren dentro del plan de euskera la innovación metodológica y los proyectos web 2.0 que promocionen el uso del euskera: máximo 10 puntos.

1) Proyectos de Innovación: 5 puntos máximo.

2) Web 2.0 egitasmoak: 5 puntu gehienez.  
g) Entitateak EAEko lantokietan dituen langilekopurua: 10 (hamar) puntu, gehienez.

- 1) ≤50 langile: 3 puntu.
- 2) 51-100 langile: 5 puntu.
- 3) 101-250 langile: 7 puntu.
- 4) >250 langile: 10 puntu.

5.- Beharrezkotzat jotzen denetan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak entitate eskatzaileari behar beste informazio eta dokumentazio eskatu ahal izango dio, aurkeztutako jarduerak egoki den eran baloratze-ko.

**14. artikulua.**– Diru-laguntzen mugak.

1.– Lehen euskara-planaren diseinuak jasotako balorazioaren arabera, honako diru-laguntzen mugak finkatu dira:

Puntuak <i>Puntos</i>	Diru-laguntzen mugak <i>Límite de la subvención</i> (€)
40-60	5.000
61-75	8.000
76-100	10.000

2.– 2011ko kudeaketa-planaren balioespenaren arabera, honako diru-laguntzen mugak finkatu dira:

Puntuak <i>Puntos</i>	Diru-laguntzen mugak <i>Límite de la subvención</i> (€)
